

## PRENTSAURREKOA GUGGENHEIM URDAIBAI STOP

**Guggenheim Urdaibai Stop plataformatik amaitutzat ematen dugu maiatzaren 19an Mediterranean Alliance for Wetlands-ekin batera hasitako nazioarteko kanpaina. Zientzia-munduak Urdaibaik beharrezko duen zaintzari emandako babes, oso positiboki baloratu eta Ramsar, UNESCO eta MITECOk. bidali zaizkien gutunei erantzuteko izan duten atzerapenaren aurrean, kezka larria adieraziz.**

Guggenheim Urdaibai Stop herri-plataformak bere kanpainaren itxiera iragarri nahi du. Kanpaina horretan, Urdaibairen aldeko Alerta Gorria piztu zen nazioartean. Ekimen horren bidez, Guggenheim Urdaibai proiektuak Biosfera Erreserbarentzat suposatzen duen mehatxu larriaz ohartarazi nahi genituen nazioarteko eta estatuko erakundeak. Helburu hori, betetzat jotzen dugu. Kanpainaren parte gisa, Mediterranean Alliance for Wetlands elkarteak (MAW-ek) gutun ofizialak bidali zizkien, izaera ekologista edo kontserbazionistako 77 erakunderen babesarekin, natura-ondarea babesteko funtsezkoak diren hiru erakunderi: **Ramsar**, hezeguneak kontserbatzen dituen nazioarteko erakundea; **UNESCO**, biosfera-erreserben bermatzailea; eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa (**MITECO**), Espainiako Estatuko ingurumen-politikenazken arduradunari, eta **zientzilarien manifestu** bat ere argitaratu zuen, mundu akademikoaren eta ikertzaileen babes bilatuz.

Arriskuan dauden ekologia-, kultura- eta gizarte-balioak garrantzitsuak diren arren, hiru erakundeetako batek ere ez die erantzun esku hartzeko eskaerei. Jakin badakigu MITECOri bidalitako gutuna Gobernuko Hirugarren lehendakariordea eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministra denaren gabinetera helarazi zaiola; UNESCOren kasuan, jakinarazi digute MaB Programaren Espainiako Batzordeak ezarritako prozedurari jarraituz hasi dela gure eskaera izapidetzen, eta espero dugu gaur bertan egingo den MaB Batzordearen bilera ta gero, erantzuna izatea. Ramsarren kasuan, oraindik ez dugu inolako jakinarazpenik izan. Hiru hilabete baino gehiago igaro ondoren, erakundeek isiltasun horrek, plataformaren iritziz, ngurumenababesteko aginduari jaramonik ez egitea eta kanpaina hau babestu duten 77 erakunderen eskaerari muzin egitea dakar.

Zientzilarien Manifestuaren kasuan guztiz kontrakoa gertatu da, jasotako erantzuna oso positiboa izan baita, kontraste deserosoa agerian utziz: komunitate zientifikoak ahotsa altxatu eta UNESCOk aitortutako Biosfera Erreserba baten oreka arriskuan jarriko duen proiektu baten arriskuez ohartarazten duen bitartean, babes eta zaintzan lehenak izan beharko luketen erakundeak isilik daude, edo, behintzat, espero zitekeen sendotasunik ez dute erakutsi. Hutsune instituzional horrek mesfidantza soziala sortzeaz gain, interes ekonomikoak edo politikoak nazioarteko konpromisoen eta ingurumen-erantzukizunen gainetik jar daitezkeela ere adierazten du.

"Plataformatik gure parte bat bete dugu: Urdaibai babesteko ardura dutenei ohartaraztea, dokumentatzea eta laguntza eskatzea. Ramsar, UNESCO eta MITECOren erantzun faltak agerian uzten du ingurumena babesteko mekanismoen hauskortasuna, interes ekonomiko eta politikoei aurre egin behar dietenean"

Kanpaina honen amaierarekin, Guggenheim Urdaibai Stop-ek lurraldearen defentsaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa berresten du eta herritarrei erne egoteko eskatzen diegu. Erakundeek bultzatutako entzute-prozesuan aktiboki parte hartzen jarraitu behar dugu, eta proiektu honi kontra egiten jarraitu aukera dugun eremu guztietan. Horrela egingo dugu UNESCOk Txinan irailaren 22-27an egingo duen biltzarrean. Plataformak gutun bat bidali du proiektu honek Busturialdea bezalako eskualde batean eta Urdaibai bezalako espazio baterako suposatzen duen mehatxua azaltzeko.

"Nazioarteko eta estatuko erakundeak isiltzen badira, ahotsa altxatzen jarraituko dugu. Urdaibai ez dago salgai."

Eskerrak eman nahi dizkiegu **Mediterranean Alliance for Wetlands** erakundeari eta bidaia honetan lagundu digun lantaldeari (Task force). Ondoren, zientzilarien manifestuaren sortzaileetako bat izan den Aitor Galarzari emango diogu hitza, inolako zalantzarik gabe gai honetan pertsona aditua eta manifestu honek duen balioa azaltzeko egokiena.

**Kontaktua:**

David Henderson (Plataforma Guggenheim Urdaibai Stop)  
guggenheimurdaibaistop@gmail.com / 00 34 635 008 549